



PRENTSA OHARRA

BILBOKO ARTELAN BERREGINEN MUSEOAK ADIN GUZITENTZAKO MARRAZKETA ETA MARGOLARITZA IKASTAROA ANTOLATU DU

- Museoak 150 plaza eskainiko ditu (30 txanda bakoitzean), eta izena emateko epea martxoaren 27rarte izango da
- Eskolak asteartetik ostiralera eskainiko dira, apirilaren 1etik ekainaren 27 bitartean, goizeko eta arratsaldeko txandetan

Bilbo, 2008ko martxoak 18.- Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Saila eta Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe dagoen Bilboko Artelan Berreginen Museoak adin guztientzako marrazketa eta margolaritza eskolak eskainiko ditu apirila-ekaina hiruhilabetekoan. Ikastaro hau apirilaren 1ean hasi eta ekainaren 27ra luzatuko da, eta eskolak asteartetik ostiralera emango dira, goizeko eta arratsaldeko txandetan. Ikastaroa Museoak Mirasol Kondearen kaleko 2an dituen instalazioetan egingo da eta **Manuel Balsa “El ruso”** ezizenaz ezagutzen den irakasle ospetsuak emango ditu klaseak. Bertan parte hartzeko interesa dutenek izena eman dezakete martxoaren 27rarte.

Gutzira, 150 plaza eskainiko dira (30 txanda bakoitzean), eta 90 euroko prezioa izango dute (62 € langabetu, familia ugariko kideak, etab.). Ordutegiei dagokienez, goizeko txanda 10:00etan hasi eta 12:00etan amaituko da, eta arratsaldekoa, 16:00etatik 18:00ak bitartekoa izango da asteartetik ostiralera bitartean. Gaueko txandan izena emateko aukera ere eskeintzen da: asteartetan eta asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara.

Onartutakoen zerrenda martxoaren 28an jarriko da, Museoak duen Egoitza Didaktiko eta Administratiboko iragarki taulan (Mirasol Kondea, 2), goizeko 11:00etatik aurrera. Matrikula eskariak eskeintzen diren plaza kopurua gairikoa balu, hauek zozketa bidez emango dira. Informazio gehiago lortzeko, **deitu 94 415 76 73 telefonora**.

INFORMAZIO GEHIAGO:

L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos
BERREGINEN MUSEOKO PRENTSA KABINETEA
Kale Nagusia, 81 – 3. solairua, 9. bulegoa. 48011 BILBO
Tel. 94 416 08 00 - Faxe: 94 439 30 56
Sakelakoa: 657 796 583
villamandos@lvcomunicacion.com